

Altza / Herrera

# Altza herriko web gunea


Larraitz Garmendia (Tel.: 943-391267)

**h** Hilaren 30ean, San Martzial egunean, arratsaldeko 19.30etan, www.altza.net Altza herriko webgunea martxan jarriko da. Aurkezpena Altza Herri Ikastetxean egingo da.

Bertan, besteak beste, Garikoitz Araolaza eta Eneko Astigarraga Eibar.org elkarteko kideak egongo dira. Baita Aurki.com euskaraz eginiko lehen bilatzailearen sortzaileak ere.

Webgunea abian jartzea-ekin batera, Estibaus boletina euskarri elektronikoan ikusi ahal izango da.

Altza herriko webgunea egiteko ideia Altza Historia mintegian sortu zen orain dela lau urte, mintegi horretako kideak teknologia berriek informazio eta komunikazio munduko proiektu berrien garapenerako zuten garrantziaz jabetu zirenean. 1996.urtean mintegiko kideak posta elektronikoaren bidez, esparru ezberdinetan



Webgunea sortzeaz, gain Altzako Historia Mintegiko kideek argazki zaharrak digitalizatu dituzte

lan egiten zuten hainbat talderekin harremanetan jartzen hasi ziren. Horrekin batera, argazkien digitalizazio lanetan burubelarri hasi ziren, Altzako argazki zaharrei euskarri berria emanez. Hori guztia dela eta, Casares kultur etxean dagoen Bertako Bildumak eskainitako datu eta dokumentuak digitalizatu dituzte.

Orain martxan jarriko den lehen fasean Altz@net-

ek Altzari buruzko informazioa eskainiko du, baina antolatzaileek etorkizunean altzatarrek erabiliko duten komunikazio tresna izan dadin nahi dute. Webgune berria gure errealitatea ezagutzeko gune bihurtu daiteke, edo gure historia ezagutzeko toki aproposa. Webgune horretan euskarak erabilera nabarmena izango du. Amaitzeko, egitasmo honen helburu soziala azpimarratu

## Gora San Martzial !

Ostiral honetan, hilak 30, San Martzial Altzako patroia eguna da. Jaiak joan den astean hasi baziren ere, asteburu honetan Sanmartzialak bizi bizi datoz. Larunbatean haur eta jubilatu eguna izango da. Horiek izango dira protagonista nagusiak. Ezin aipatu gabe utzi gainera, arratsaldeko 18.30etan sagardo dastaketa antolatu dela. Igandean, berriz, baserriarren eguna izango da. Besteak beste, idi probak, sagardo lehiaketa, bertso saioa (Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso) eta dantzaldia egingo dira.

behar da. Altz@net ez da ekimen komertziala, elkarte, talde eta pertsonen partehartzea behar duen proiektua baizik.

### Goizean goizetik kalean

Ostiralean, hilak 30, goizean goiz hasiko dira ospakizunak auzoan. Goizeko 08.00etan esnatuko dira auzotar asko dultzaina hotsekin. Arratsaldean, berriz, haur danborradak hartuko ditu Altzako kaleak. Gauerdia baino ordu laurden lehenago, Valentziako Zamorano Cavaller suetxearen ikusizun piroteknikoa ikusi ahal izango da.

## ULUWATU

UDA HONETAN ULUWATUN  
EROSKETA EGINEZGERO...  
ULUWATU-KOEK ALDE ZAHARREAN  
PINTXO BATZUTARA GOMBIDATZEN  
ZAITUZTE!!



Narrika 3,20003

DONOSTIA

Tfnoa.: 943 42 01 71

e-mail: uluwatu @clientes. euskaltel. es



(F. U. R. E. S. A.)

**ZERBITZU IRAUNKORRA: 943-39.07.12**  
DONOSTIA ETA GIPUZKOAKO OSPITALETAN

**BULEGO NAGUSIA: Hondarribia, 28 - DONOSTIA**  
Tfnoa.: 943-42.87.79 • 943-42.17.86  
P.K.: 672

**BULEGOAK: ANDOAIN, PASAIA, ERRENDERIA, HERNANI,  
LASARTE-URNIETA, TOLOSA ETA ASTIGARRAGA**